



Arbizuko
Udala

Arbizuko herriari mezua,

Azken orduetan nahi ez genuen erabakia hartzera behartuak aurkitu gara. Arbizuko 26. Duatloia bertan behera geratu da. Federazioari eta izena eman duten atletei bidali diogun mezua honakoa izan da:

“Antolakuntzari dagozkion ahalegin guztiak egin ditugun arren, izen emate kopurua ez da iritsi proba berme osoz egiteko behar den gutxienekora. Horrelako ekitaldi bat antolatzeak baliabide material zein giza baliabide askoren beharra du eta hori ez da bideragarria izen emandako pertsonen kopurua txikiegia denean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu ekitaldian interesa erakutsi duten guztiei eta antolaketan lan egin dutenei, Nafarroako triatloi federazioa eta Sakanako Mankomunitatea kasu.

Eskerrik asko zuen ulermenagatik”

Erabaki hau hartzea ez da erraza izan, Arbizuko duatloia gure herriko ekitaldi berezi batean bihurtu delako eta Nafarroako probarik zaharrenean ere. Errealitatea orokortasun batean duatloia gainbeheran dagoela da. Azken urteetan, proba hauek profesionalizatuz joan dira eta parte hartzaile herrikoiak erakartzeari utzi dio. Agian momentua da proba birplanteatzeko edota ikuspegiz aldatzeko.

Arbizuko kirol ekitaldi honen norabidea erabakitzeko modurik onena denon artean atera daitezkeen ideietatik etorriko da. Horregatik batzar ireki baterako deia egin nahiko genuke, ideiak eztabaidatu eta aukera berriak aztertu ahal izateko, herrian parte hartzea eta kirola sustatzeko.

DATA: Martxoak 29, larunbata.

LEKUA: Udaletxea

ORDUA: 12:00

Herritar, kirolari, bolondres eta kirol-ekitaldiak antolatzeako intresa duen edonori dei egiten diogu bilera honetan parte har dezan.

ARBIZUKO KIROL ZINEGOTZIAK.